

2004ko lehenengo hiruhilekoan, heriotzak %1,2 gehitu ziren, aurreko urteko aldi beraren aldean

Heriotzen kausa nagusia zirkulazio-aparatuko gaixotasunak izan ziren eta ondoren, tumoreak

2004ko lehenengo hiruhilekoan, Euskal AEn 4.926 lagun hil ziren, iazko aldi berean baino %1,2 gehiago, EUSTATen datuen arabera. Lurralde historikoka, Araban 588 lagun hil ziren (%6,3), Bizkaian 2.748 (%1,6) eta Gipuzkoan 1.590 (%-1,2).

Normalean, urteko lehenengo hiruhilekoan izaten da heriotza gehien eta arnas aparatuko gaixotasunak izaten dira heriotza-kopuruan gehikuntza handiena izaten dutenak. Baina aurrean, gehikuntza handiena zirkulazio-aparatuko gaixotasunek eragindako heriotzetan izan da, gehikuntza %14,1ekoa izan baita, aurreko hiruhilekoaren aldean. Gaixotasun horiengatik 1.599 lagun hil ziren, heriotza-kausa nagusia izan ziren eta heriotzen herena eragin zuten.

Bigarren heriotza-kausa tumoreak izan ziren eta 1.309 heriotza (%26,6) eragin zituzten. Hirugarren, askoz urrunago kokatu ziren arnas aparatuko gaixotasunak, neguko hilotan 542 heriotza eragin baitzituzten.

Heriotzen kausak ez ziren berdinak izan sexu batean eta bestean: gizonezkoen artean, tumoreak hilgarriago gertatu ziren zirkulazio-aparatuko gaixotasunak baino; emakumezkoen artean, berriz, heriotza-kausa nagusia gaixotasun kardiobaskularrak izan ziren, eta tumoreak bigarren. Arnas aparatuko gaixotasunak hirugarren heriotza-kausa dira, oraindik ere, sexu bietan.

2004ko lehenengo hiruhilekoan izandako heriotzen artean, 10 heriotza urtebetetik beherako umeei egokitu zitzaizkien: 8 mutikori eta 2 neskatori.

2004ko lehenengo hiruhilekoko hazkunde begetatiboa negatiboa izan zen eta 372 biztanle galdu ziren. Herrialdeka, saldo negatiboak izan ziren Bizkaian eta Gipuzkoan, 398 eta 22 biztanle galdu baitzituzten, hurrenez hurren. Araban, oster, ohiko den legez, jaiotzak gehiago izan ziren heriotzak baino (+48).

Euskal AEko heriotzak sexuka, heriotza-kausaren arabera. Hiruhilekoen alderaketa

	2004ko 1. Hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoa (2003ko 4.hiruhilekoa)		Aurreko urteko hiruh. bera (2003ko 1. hiruhilekoa)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
HERIOTZAK	4.926		4.650		4.868	
Gizonezkoak	2.512	51,0	2.416	52,0	2.580	53,0
Emakumezkoak	2.414	49,0	2.234	48,0	2.288	47,0
HERIOTZA-KAUSA						
GUZTIRA	4.926		4.650		4.868	
Tumoreak	1.309	26,6	1.341	28,8	1.349	27,7
Zirkulazio-aparatua	1.599	32,5	1.402	30,2	1.587	32,6
Arnas aparatua	542	11,0	503	10,8	552	11,3
Txegoste-sistema	250	5,1	236	5,1	287	5,9
Istripuak	150	3,0	182	3,9	166	3,4
Gainerako gaixotasunak	1.076	21,8	986	21,2	927	19,0
GIZONEZKOAK	2.512		2.416		2.580	
Tumoreak	831	33,1	868	35,9	875	33,9
Zirkulazio-aparatua	732	29,1	623	25,8	763	29,6
Arnas aparatua	298	11,9	266	11,0	301	11,7
Txegoste-sistema	126	5,0	144	6,0	162	6,3
Istripuak	100	4,0	117	4,8	121	4,7
Gainerako gaixotasunak	425	16,9	398	16,5	358	13,9
EMAKUMEZKOAK	2.414		2.234		2.288	
Tumoreak	478	19,8	473	21,2	474	20,7
Zirkulazio-aparatua	867	35,9	779	34,9	824	36,0
Arnas aparatua	244	10,1	237	10,6	251	11,0
Txegoste-sistema	124	5,1	92	4,1	125	5,5
Istripuak	50	2,1	65	2,9	45	2,0
Gainerako gaixotasunak	651	27,0	588	26,3	569	24,9

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

 Tel.: +34-945 01 75 00 Faxa: +34-945 01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tel.: +34-945 01 75 49. Faxa: +34-945 01 75 01

 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es